

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2132

AGINDUA, 2021eko martxoaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira Fundación Osatu / Osatu Fundazioaren azkentzeko eta likidatzeko erabakiak.

2020ko apirilaren 24an, eskabide bat aurkeztu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Osatu / Osatu Fundazioaren patronatuak 2018ko irailaren 27an hartutako azkentze-erabakia. Erabaki hori jendaurrean jarri zen, likidazio-batzordeak egintza berean hartutako likidazio-erabakiarekin batera, 2019ko uztailaren 1eko eskrituraren bidez. Eskritura hori Bilbon egiletsi zen Juan Ignacio Gomeza Eleizalde notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 747). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datuak eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40, 41 eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 48. eta 49. artikuluetan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Osatu/ Osatu Fundazioaren azkentzeko eta likidatzeko erabakiak, agindu honen datarekin, Bilbon, Juan Ignacio Gomeza Eleizalde notario jaunaren aurrean 2019ko uztailaren 1ean egiletsitako azkentze- eta likidazio-eskrituran aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zk.: 747).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.